

ESKOLA BIDEAK PANDEMIA EGOERAN

ZERGATIK DA GARRANTZITSUA LAGUNEKIN OINEZ* ESKOLARA JOATEA PANDEMIA EGOERAN EGON ARREN?

“Pandemiari aurre egitea ez da osasun estrategia bat soilik, gizarte osoaren esku hartzea eskatzen baitu, Covid-19-arekin elkarbizitzen ikastea ahalbidetzen duena, pertsona ahulenak babesteko modu berriak diseinatzuz, haurren eta gazteen hezkuntza eta garapen soziala sustatuz eta bizi kalitatea, interakzio soziala eta zaintza pertsonala hobetuz”.

(“COVID 19: Una respuesta comunitaria para una pandemia social”¹ Agiria, Covid-19 Osasun Komunitarioaren Behatokia.)

Pentsa dezakegu haur bat, beste haur batzuekin batera eta bere joan-etorriak zaintzen ez dituen pertsona heldurik gabe, eskolara oinez joateak ez duela aldaketarik ekarriko. Baina haur horrek ematen duen pauso bakoitzarekin, bere ingurunea ezagutzen du, ikasi egiten du, hazi egiten da... Egunero egiten duen bide horrek bere buruarengan segurtasuna irabazten laguntzen dio, arduratsua izaten, eta berarengan konfiantza duten pertsona helduak daudela jakinarazten dio. Haurrak eskolara lagunekin oinez doazenean, berdintasun egoeran harremanak sortzeko eta elkar laguntzeko gai direla ohartzen dira. Azken batean, autonomia eta elkarrekintza pixkanaka garatzeko prozesuan laguntzen die.

COVID-19-ak umeen egunerokotasunean eragina izan duten eta duten aldaketa asko ekarri ditu gizartera. Osasun krisia kontrolatzeko, hainbat murrizketa egin dira, mugikortasunean zein harremani dagokienean. Hainbat arlotako profesionalek ohartarazi dutenez, hala nola, osasun profesionalek, pediatrek, psikologoek eta hezitzaileek, egoera honek kalte egin diezaike adingabeei, bai ikuspuntu fisikotik, bai emozionaletik ere. Euskal Herrian ere, egoera berezi honek eragindako ondorioak arlo akademikoan, emozionalean eta sozialean aztertu dira². Normaltasun berriak ezarritako neurrien artean, adingabeen bizi-kalitatea eta ongizatea hobetzen duten proiektuak geldiarazi ditu. Esate baterako, Eskola Bideak (edo Caminos Escolares, Caminos Amigos, Eskolara Lagunekaz, Bizibideak...).

Hau da dokumentu hau egiteko testuingurua, arrazoia eta abiapuntua. Bere idazketan, haurren autonomia berreskuratzeko konpromisoa partekatzen dugun erakunde eta pertsona desberdinek parte hartu dugu, elkarlanean. Kezkez haratago, osasun komunitarioarekiko eta gure herri eta hirien garapenarekiko interesetik. Lan hau, beraz, begirada eta ezagutza horiek elkar banatzearen emaitza da, jakin badakigulako, **gaur egun bizitzen ari garen pandemia-testuinguru honetan, hamaika arrazoiengatik, lagunekin eskolara oinez joateak inoiz baino zentzu handiagoa daukala:**

* *Dokumentu honetan, eskolara oinez edo ibiltzen joateaz ari garenean, ibilbide hori egiteko beste edozein modu aktiboa ere sartzen dugu (bizikletaz, gurpil-oholak, patinak, etab.).

→ PANDEMIAN EGON ARREN, ESKOLARA OINEZ JOATEAK HAURRENTZAT ONURAGARRI IZATEN JARRAITZEN DUELAKO:

SARS-COV-2 birusa, COVID-19, pandemia, konfinamendua, koarentena, eskolara itzultzea, neurri berriak eta aldakorrak... ziurgabetasun egoeran bizi gara. Koronabirusak bizi garen mundua edozein momentutan alda daitekeela egiaztatu digu. Ziurgabetasun ekonomiko, politiko eta sozialak eragindako estresak etorkizuna planifikatzea, etorkizun hurbila bada ere, ezinezkoa dela pentsatzera eraman gaitzake. Egoera honek pertsona askorengan segurtasun ezaren sentazioa areagotu baino ez du egin.

Hala ere, ziurgabetasun garaia bada ere, haurrek hazten eta garatzen jarraitu behar dute. Haurrek erantzun beharreko premiak eta gaitasunak dituzte oraindik ere: sozializatzea, beren autonomia, mugimendua, trebetasun espaziala, trebetasun kritikoa... garatzeko prozesuan daude.

Granadako Unibertsitateko ikerlariak (UGR)³ eskolara modu aktiboan (oinez zein bizikletaz) joateak haurren autoestimua, autonomia eta osasuna hobetzen duela egiaztatu dute. Pandemiaren aurrean areagotu egiten dira onura horiek, sistema immunologikoa eta kardiobaskularra indartzen dituztelako. Hau da, COVID-19ak gehien kaltetzen dituenak. Honez gain, loditasuna prebenitzen edo eta murrizten lagun dezake ere.

Hortaz, **Haurrei autonomia itzultzeko garaia** da, eta eskola bideak estrategia ona dira horretarako. Euren helburu nagusia, hain zuzen ere, hirian haurren **autonomia eta mugikortasuna sustatzea delako**.

→ PANDEMIAN EGON ARREN, ESKOLARA LAGUNEKIN OINEZ JOATEA PARTE HARTZE ERANTZUNKIDEA LANTZEKO AUKERA BAT DELAKO.

Bizitzen ari garen pandemia honek ikasteko eta egokitzeko ahalegin ia etengabea eskatu digu denoi. Osasun krisiari eta krisi sozial eta ekonomikoari aurre egiten ikasi behar izan dugu. Baldintza hauetan eta hilabete luzez, haurrak euren etxeetatik irten gabe egotera, egunean ordubate bakarrik kalera ateratzera, musukoa erabiltzera, eskuak egunean gutxienez 5 aldiz garbitzera... egokitu dira. Ziurgabetasuna eta maite dituzten pertsonen hutsunea eta galera eurenganatu behar izan dute...

*"Nazioarteko erakundeek, hala nola, Osasunaren Mundu Erakundeak (OME) edo Gaixotasunak Prebenitzeko eta Kontrolatzeko Europako Zentroak (ECDC) adierazten dute sare komunitarioak funtsezkoak direla COVID-19-aren gizarte-eta osasun-krisia kudeatzeko. Sare horiek infekzioaren transmisioa eta horri lotutako inpaktu soziala murrizten dituzte. (...) Prebentzio-neurriak eta distantzia fisikoak ez dute distantzia soziala esan nahi "*¹.

Aipatutako ohitura berriak eta erresilientzia eta elkar zaintzeko estrategiak garatzea ez da beti erraza izaten – are gutxiago testuinguru berri eta estresagarri honetan – ez pertsona helduentzat, ezta haurrentzat ere. Horregatik, funtsezkoa da sare komunitarioak eraikitzea, baliatzea eta

indartzea, elkar laguntzeko loturak indartzeko eta zalantzez beteriko testuinguru aldakor hauetan, elkar lagundu eta elkarri arreta eskaini ahal izateko.

Horregatik, eskolara oinez joatea erantzukizun komunitarioko ohiturak praktikatzeko egokia da. Aukera bat da haurtzaroan konfiantza izateko eta hiriko kaleetan zehar ibiltzen uzteko: musukoarekin, segurtasun-distantzia errespetatuz eta haien lagunekin talde txikietan joanez. Are gehiago, aitortzarako unea da. Haurrak, eta hilabete hauetan zehar frogatu dute, pertsona helduak bezain gai dira, herritar arduratsuak eta konprometitua dira. Gure komunitateko kide diren aldetik, pertsona helduei eskatzen diegun errespetu eta konfiantza bera eskaini behar diegu. Haurren ezaugarrietako bat egoera berrietara egokitzeko duten gaitasuna da. Erresilientzia eta erantzunkidetasunaren adibide dira.

→ PANDEMIAN EGON ARREN, ESKOLARA LAGUNEKIN OINEZ JOATEAK MUGITZEKO MODURIK SEGURUENA IZATEN JARRAITZEN DUELAKO

Eskola garraioari dagokionez, Eusko Jaurlaritzaren COVID-19-aren prebentziorako jarduera-protokoloak, ikasleek eserleku finkoak izatea eta haien bizikidetzataldeen eserlekutik hurbil egotea gomendatzen du. Horrek esan nahi du, behartutako aireztapenarekin bada ere, ibilbidean zehar bizikidetzatalde ezberdinek, leihatila itxiekin eta espazio berdina partekatuz bidaiatzea saihestezina dela.

Gau egun, koronabirusa airean transmititu daitekeela dioten ebidentzia zientifikoak daude. Transmisio-arriskua areagotu egiten da distantzia txikietan, espazio itxi eta jendetsuetan, bereziki gaizki aireztatutakoetan. Transmisio-arriskua barnealdean kanpoaldean baino nabarmen handiagoa dela azpimarratzen da. Horregatik, ahal den guztietan, aukera gomendagarriena ahalik eta jarduera gehien aire zabalean edo espazio ireki eta ondo aireztatuetan egitea da.

Beraz, COVID-19-ari aurre egiteko, eskolara oinez joatea ditugun aukeraren artean onenetakoa da eta, seguru aski, ikasleen arteko kutsatzea saihesteko eta osasun-aholkuak errespetatzeko modurik egokiena da. Alde batetik, jarduera aire zabalean burutzen delako; eta bestetik, eskolarako bidean modu naturalean "burbuila taldeak" sortzen direlako. Normalean gela berean ikasten duten lagunen taldeak eratzen baitira.

→ PANDEMIAN EGON ARREN, ESKOLARA LAGUNEKIN OINEZ JOATEA JARDUERA FISIKO BARRUTZEKO MODU BAT DELAKO

Eusko Jaurlaritzaren COVID-19-aren kontra jarduteko protokoloak ezartzen du, federatu gabeko kirol-jarduera fisikoari dagokionez, jarduera hori banaka edo taldeka egin daitekeela, kontaktu fisikorik gabe eta talde mugatuetan. Era

berean, jarduera hori aire zabalean edo ondo aireztatutako gunere irekietan egitea gomendatzen du.

Normaltasun egoera berri honen aurrean eta hainbeste hilabetez itxialdian egon ondoren, herritarren ohiturak aldatu egin dira. Gaur egun, ariketa fisiko gehiago egiten da aire zabalean eta eskola-kirolaren praktika eta kirol-instalazioen erabilera mugatua daude. Edonola ere, Osasunaren Mundu Erakundeak 5 eta 17 urte bitarteko pertsonen egunero, gutxienez 60 minutuz, intentsitate ertaineko edo handiko jarduera fisikoa egitea gomendatzen du.

Jarduera fisikoak pertsonen osasunerako dituen onurak frogatuta daude. Gainera, mugikortasun aktiboak gizarteari ekartzen dizkion onurak egiaztagarriak dira: kutsadura atmosferiko txikiagoa, zarata gutxiago, berotegi-efektua eragiten duten gas gutxiago isurtzea, etab.

Hau honela izanda, eskolara oinez joatea jarduera fisikoa sustatzeko aukera aparta da, sedentarismoa saihesteko eraginkorra dena gainera. Eskola-bideen ekimena baliatzeko unea da, izan ere, oso modu sinple eta onargarri batean gure ongizaterako hain beharrezkoa den eguneroko jarduera fisikoari minutuak gehitzen dizkiolako.

→ PANDEMIAN EGON ARREN, ESKOLARA LAGUNEKIN OINEZ JOATEAK HARREMANTZEMODU SEGURUA IZATEN JARRAITZEN DUELAKO.

Hilabete hauetan zehar, pertsonen arteko harremanekin zer ikusia daukaten eremuak (erlazionatzeko moduekin, espazioekin eta dinamikekin lotutakoak) gehien kaltetuen artean koka genitzake. Esate baterako lagunekin ezin elkartzea, harreman-modu birtual berriak sortu beharra, familia-lotura zabal eta baliotsuak zaintzeko ezintasuna, etab.

Osasun Sailak gomendio orokor batzuk ematen ditu koronabirusaren transmisioa prebenitzeko eta egunerokotasunari segurtasunez eta konfiantzaz aurre egin ahal izateko. Besteak beste, musukoa erabiltzea, eskuak garbitzea eta segurtasun distantzia mantentzea (gutxienez 1,5m), harremanak ahalik eta gehien murriztea eta bizikidetzaren estutik haratago ez zabaltzea, etab.

Hala ere, distantzia fisiko honek ez du isolamendu soziala esan nahi. Izaki sozialak garen heinean, laguntza eta babes soziala izatea gure osasun adierazle fisiko zein psikologikoekin erlazionatuta dago. Harremanak landu eta zaintzeak besteekiko dugun konfiantza handitzen laguntzen digu, eta epe luzera, gizarte-kohesioa hobetzen laguntzen du gizarte-sarea hedatuz.

Eskolara oinez joateak lagunekin harremanetzeko denbora gehiago eskaintzen die haurrei, lagunekin gela, jolastokia edo jangela partekatzeaz harago. Bizitza osorako edo, gutxienez, norberaren nortasuna garatzeko garrantzitsuak diren harremanak sendotzeko eta estutzeko baliogarria da. Osasun-berme guztiekin eskolara oinez joateak harreman sozialak errazten eta laguntzen ditu.

→ PANDEMIAN EGON ARREN, ESKOLARA LAGUNEKIN OINEZ JOATEAK **ERALDAKETA** PROIEKTU BAT IZATEN JARRAITZEN DUELAKO.

Gure hiriak eta herriak "*adin ertaineko, gizon langile eta kotxedunaren*" parametrotik garatu ziren eta hiri-ikuskerak honetatik eratorritako arazoak hobeto ulertzen hasi gara dagoeneko: zarata, kutsadura, ekitate eta berdintasun eza, irisgarritasun falta, etab.

Eskola Bideak proiektuaren helburua eskolara oinez joatea baino harago doa: "etxetik eskolara" dagoen bidea lantzen dugu, badakigulako haur guztiek egunero egiten duten ibilbidea dela, ez delako haurrik dinamikatik kanpo geratzen.

Baina Eskola bideak sustatzean, helburua ez da soilik hiria eraldatzea haurrak eskolara seguru joateko. *Eskola Bideak mugikortasunaren piramidearen lehentasunak alderantzikatu nahi ditu*, oinezkoa (ez dugu ahaztu behar denok garelako oinezko) lehentasunezko tokian kokatzeko. Francesco Tonucci⁴-k esan bezala, umeentzako segurua eta osasungarria den hiria, pertsona guztientzako delako segurua eta osasungarria.

Haurrek kaleak berriro berreskuratzea, kaleak bete, gozatu eta bizitzea behar - beharrezkoa dugu. Haurrak egunero kalean joan-etorrietan ikusteak bakarrik, herri antolamendua diseinatzen dutenei beste ikuspegi bat izateko aukera eskaintzen dielako. Haien presentzia soilak gure hiriak hobetzen ditu, guztiontzako espazio osasungarriagoak bihurtzen ditu. Hiri-trama giza-trama bihurtu nahi dugu. Kaleak erlaziorako eta ongizaterako eremu izateko eraldatu nahi ditugu, bizilagunen erantzukizunezko erabiltzenerako eta gozamenarako.

→ PANDEMIAN EGON ARREN, ESKOLARA LAGUNEKIN OINEZ JOATEAK HAURREK BERAIEI **HIRIA EZAGUTZEKO** AUKERA BAT IZATEN JARRAITZEN DUELAKO

Etxeko konfinamenduak, itxiera perimetralak, etxeratze-aginduak... gure mugikortasun-aukerak murriztu dituzte, baita gure inguru hurbilenetan ere. Harreman komunitarioei eragiteaz gain, hazi eta bizi garen inguru horren berrezagutzeari ere eragiten dio egoera honek.

Pertsonen garapen egoki eta osasungarriarako, gure ingurua ezagutzea funtsezkoa da. Seguru sentitzeko, norbere burua frogatzeko eta arriskatzeko beharrezkoa da, eta gaitasun kritikoa eta konprometitua garatzeko ere bai. Komunitatea osatzen dugun pertsona guztiongan eragina izango duten irtenbideak eta hobekuntzak pentsatzeko abiapuntua ematen digu.

Haurren Hirien Sarea (HHS)-ren proiektuaren proposamena sinplea da: eskolara lagunekin joaten hastea eta, denboraren poderioz, hiria bere osotasunean irabaztea. Egunero oinez joatean, haurrek euren ingurunean -eta beraien bizilekuan- konfiantza eta segurtasuna irabazten dute. Gainera, haurrek **udalerrria ezagutzeko eta begiztatzeko** modu bat ere bada, eta

eskola bideen metodologiak horretarako lagungarriak dira neurri handi batean. Neska-mutilek euren auzoa mapeatzen dute, kaleak diagnostikatu eta eraldaketak proposatzen dituzte, ibilbide seguruen sareak zehazten dituzte, topaguneak identifikatzen dituzte... Familiek ere prozesuan parte-hartu dezakete, eta hiriak haurren ikuspuntura egokitzen lagun dezakete. Nahiz eta egoera txarrean egon, eta pandemiak banaka mugitzera behar gaitzakeen, ingurua ezagutzeak haurrei gaitasun eta aukera berriak eskaintzen dizkie. Euren kabuz eta inoren laguntzarik gabe herritik mugitzea posible eginez.

→ PANDEMIAN EGON ARREN, ESKOLARA OINEZ JOATEAK INGURUMENAREKIKO JASANGARRIA ETA ADEITSUA IZATEN JARRAITZEN DUELAKO.

COVID-19-ak pertsonen osasuna kolokan jarri du, baina ez dugu ahaztu behar, momentu hauetan garrantzitsua eta lehentasunezkoa dela gure ingurunea eta planeta osotasunean zaintzea. Are gehiago, "Arrisku globalen txostenean"⁵ aipatzen denez, antzemandako arrisku nagusien eta SARS-COV-2 bezalako patogeno berrien jatorria ingurumen-degradaziotik dator. Horregatik, garrantzia eman behar diogu planetaren osasunari. Beste arrisku potentzial batzuk sor ez daitezen, hala nola, hondamendi naturalak edo eta beste pandemia batzuk.

Kontestu honetan, haur gehiago badoaz eskolara oinez, orduan eta auto gutxiago ibiliko da gure hirietan. Oso erraza da: oinez joatea ingurumenarekiko erarik jasangarriena eta adeitsuena da, osasungarriena, bidezkoena eta merkeena. Eta lagunekin egiterakoan, dibertigarriena ere izan daiteke.

Haurrak eskolara oinez joateak eragin zuzena du gure herrietako trafikoa gutxitzean, eta askotan hiriko joan-etorrietan autoa erabiltzea ez dela beharrezkoa erakusten du. Autoa alde batera utz dezakegula agerian uzten du eta trafikoaren soka amaigabea apurtzen laguntzen digu: auto gehiago, errepide gehiago – errepide gehiago, auto gehiago. Auzo bat, herri bat, autorik gabeko hiri bat guztiontzako hiri seguruagoa eta irisgarriagoa da, baita hiri garbiagoa ere.

→ PANDEMIAN EGON ARREN, ESKOLARA LAGUNEKIN OINEZ JOATEAK FAMILIEI **KONTZILIATZEN** LAGUNTZEN JARRAITZEN DIELAKO.

Pandemiak irauten duen bitartean, birusaren kutsakortasuna handitzea eragin dezakeen jende pilaketak saihesteko, ikastetxe askok sarrera eta irteera mailakatuak ezartzea erabaki dute, eta horrek, kasu batzuetan, are gehiago zailtzen du familiaren eta lanaren arteko uztarketa. Seme-alaba bat baino gehiago duten familien kasuan, eskolara sartzeko eta irtetzeko ordu desberdinak buruhauste bihur daitezke. Eskola-bideek eta haurren autonomiaren aldeko apustuak arazo hori asko sinplifikatzen laguntzen dute.

Azken finean konfiantzazko ariketa bat da: hurrek autonomia irabazten dute eta ahalduntzen diren neurrian, familiek denbora eta kontziliatzeko gaitasuna irabazten dute. Asko dira eskola bideetan parte-hartzen duten familiak, eta ekimenaren ebaluazioan hau da azpimarratzen duten onuretako bat. Gainera, haur eta heldu guztiok erantzukidetasunean irabazten eta giza legezko jarrerak garatzen ikasteko aukera bat ere bada.

→ PANDEMIAN EGON ARREN, ESKOLARA LAGUNEKIN OINEZ JOATEAK **KOMUNITATEAREN EGINKIZUNA** ALDARRIKATZEKO AUKERA BAT IZATEN JARRAITZEN DUELAKO.

Pandemiak gure eguneroko bizimoduan ohikoak ziren egitura sozial asko tentsioan jarri ditu. Eta modu ezberdinetan antolatuak dauden sare komunitario horiek dira, hain zuzen ere, harremanak ehuntzen, laguntza-sareak sortzen eta arazo komunaren aurrean erantzuteko estrategia sozialak eraikitzen laguntzen digutenak. Sare formal eta informal horietako batzuk orain ahuldu, eten edo murriztu egin dira, osasun eta segurtasun baldintza eta neurri guztien ondorioz.

Hala ere, badakigu *“gizataldeak eta parte hartzeak biztanleriaren ahalduntzean eta bizi baldintzen moldaketan eragina daukela. Norbanakoetara eta patologietara zuzendutako konponbideetatik ihes egin behar dela. Larrialdi sozialeko egoera bati taldeko eta komunitateko irtenbidea ematea nahitaezkoa dela, horrela horri lotutako traumak eta norberaren egokitzapenak taldean lantzea ahalbidetzen delako.”*

Eskola bideak proiektua, komunitate ikuspuntutik, eragile anitzek eta ezberdinek garatzen eta lantzen dute: hainbat udal sailetako teknikariek eta politikariek (mugikortasuna, hirigintza, hezkuntza, gazteria eta haurtzarora, etab.), ikastetxeek, gurasoek, neska-mutilek, osasun zentroek, elkarteek, etab. Gizarte osoaren inklusio soziala eta harreman sarea sustatzeko ekimena da.

Honez gain, Euskadin udalerrien sare bat daukagu, **Haurren Hirien Sarea (HHS)**, eskola bideak eta hirien eraldaketa sustatzeko era koordinatu eta bateratuan lanean ari dena.

Egoera honek, era kolektiboan eta komunitarioan erantzuntzeko eta larrialdi -egoerari aurre egiteko aukera ematen digu. Erantzukizunak eta erabakiak partekatuz, elkarlanean, esku-hartzeen irismena handituz eta komunitatearen beraren berreskuratze gaitasuna sustatuz.

ONDORIOAK:

Pandemia-garaian eskola-bideen proiektuei jarraipena ematea edo proiektu berriak martxan jartzea posiblea eta segurua da. Izan ere, eskolara oinez joatea COVID-19ari aurre egiteko aukera aparta da eta, seguru aski, osasun-aholkuak errespetatzeko eta ikasleen arteko kutsatzea saihesteko modurik egokiena.

Ondorioz, “Eskola Bideak” edo antzeko proiektuak martxan dauden udalerrietan dinamika horiek mantentzearen alde egiten dugu. Eta Eskola bideak ezarrita ez dituzten udalerrietan, berriz, eta pandemian gaudela jakinda, proiektua ezartzearen alde egiten dugu, eragiten dituen onura guztiak kontuan hartuta.

Honez gain, gizarte osoaren parte-hartzea ahalbideratuko dituzten ekintza- eta elkartasun- sareak sortu behar ditugu, COVID-19-arekin bizitzen ikasteko baliabideak direlako. Kolektibo zaugarrienak babesteko, kalitatezko hezkuntza sustatzeko, eta bizi kalitatea, ongizatea, inklusio soziala eta norbanako zaintza bultzatzeko ezinbestekoak direlako.

Gizarte-sareak eraikitzea, baliatzea eta indartzea funtsezkoa da elkar laguntzeko egiturak indartzeko eta ziurgabetasun honetan elkar babestu ahal izateko.

Eskola bideak proiektua, komunitatearen ikuspuntutik, eragile anitzen eta ezberdinen elkarlanarekin garatzen eta lantzen den ekimena da eta, horregatik, inklusio soziala eta harreman sareak sustatzen ditu. Honez gain, herritar orok, haurrek zein helduek, erantzukidetasuna irabazteko eta gizalegezko jarrerak garatzen ikasteko aukera aparta da.

Egunero eskolara oinez joaten, haurrek euren inguruan konfiantza eta segurtasuna lortzen dute eta, bide batez, inguru horretan bizitzeko dituzten gaitasunetan gehiago sinisten dute. Era berean, familiak denbora eta kontziliatzeko gaitasuna irabazten dute. Eskola Bideak proiektuak lagunekin harremanetan jartzeko denbora gehigarria eskaintzen die hurrei, ikas-gela, jolastoki edo jangelaz harago.

Eskola Bideak proiektuak hirian haurren autonomia eta mugikortasuna sustatzeko estrategia egokia dira. Haurrak kaleak berreskuratzea behar dugu, izan ere, haien presentzia hutsarekin gure hiriak hobetzen dituztelako, guztientzako eremu osasungarriak bihurtzen dituztelako.

Haurrak eskolara oinez joateak trafikoaren murrizketan eragin zuzena du eta kasu askotan, hirian ematen den kotxearen erabilpena ez dela beharrezkoa mahaigaineratzen du.

Eskolara oinez joatea, edo beste edozein era aktiboa batean, haurtzaroan jarduerak fisikoa sustatzeko eta sedentarietara saihesteko aukerarik egokienetariko bat da.

DOKUMENTU LAGUNGARRIAK:

¹ **COVID 19: Una respuesta comunitaria para una pandemia social- Manifiesto Completo.** Alianza de Salud Comunitaria.

Recurso web:

<http://www.alianzasaludcomunitaria.org/covid-19-una-respuesta-comunitaria-para-una-pandemia-social/>

² Berasategi, Idoiaga, Dosil, Eiguren, Pikaza & Ozamiz (2020). **Las voces de los niños y de las niñas en situación de confinamiento por el COVID-19.** Bilbao: UPV/EHU.

³ UGR (2020). **Investigadores de la UGR destacan los beneficios de ir a clase a pie o en bicicleta también con el coronavirus.**

Visto en:

<https://canal.ugr.es/noticia/investigadores-ugr-destacan-beneficiosclase-a-pie-bicicleta-coronavirus/>

⁴ Francesco Tonucci (2015). **La ciudad de los niños.** Barcelona, Editorial Grao.

Recurso web:

<https://www.lacittadeibambini.org/es/>

⁵ O'callaghan. Cristina (2020). **Salud planetaria y Covid-19: la degradación ambiental como el origen de la pandemia actual.**

Visto en:

<https://www.isglobal.org/healthisglobal/-/custom-blog-portlet/salud-planetaria-y-covid-19-la-degradacion-ambiental-como-el-origen-de-la-pandemia-actual/6112996/0>.

⁶ **HAURREKIN. Ekintza-proposamena.** Haurren Hirien Sarea. Innobasque.

[http://www.haurrenhiria.eus/wp-](http://www.haurrenhiria.eus/wp-content/uploads/2020/06/Haurrekin_PropuestadeAccion_EU.pdf)

[content/uploads/2020/06/Haurrekin_PropuestadeAccion_EU.pdf](http://www.haurrenhiria.eus/wp-content/uploads/2020/06/Haurrekin_PropuestadeAccion_EU.pdf)

EGILEAK:

Lan hau begiradak eta ezagutzak partekatzearen emaitza da:

- **Eusko Jaurlaritzako Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzarena**, Osasuna Sustatzeko Arloko arduradun teknikoek parte-hartzearekin gauzatu dena. Prozesu - ikuspegitik, ahalduntzetik, gaikuntzatik, parte-hartzetik eta komunitatearen erantzukizunetik abiatuta, osasun komunitarioa sustatzeko lanean ari dira Zuzendaritza honetan, osasun eta ongizate-baldintzak sortzeko.
- **Euskal Herriko Unibertsitatearena (UPV-EHU)**, *KideON* ikerketa-talde finkatuaren parte hartzearekin. Esku-hartze komunitario eta inklusiboen praktika, eredu eta prozesuen azterketatik ezagutza berria sortzeaz arduratzen den ikerketa-taldea.
- Eta **Haurren Hirien Sarearena**, haurren laguntzarekin gure komunitateak eraldatzeko lan egiten duen udal-sarearena. Talde honetan Sareko zazpi udalek (Bilbao, Derio, Durango, Gatika, Leioa, Tolosa eta Zumaia) parte-hartu dute, aldaketa-prozesu horretan laguntzen dieten bi erakundeekin batera: Solasgune, hezkuntza-laguntzan, bitartekaritza politikoan eta inguruneen diseinuan espezializatutako enpresa, eta Innobasque - Berrikuntzaren Euskal Agentzia.